

...eta **kitto!**

702 zkia. 2009-XII-11

ASTEKARIA

TOKIKOM



Afrikaren begirada Jairo Berbelen argazkietan

MULTIOPTICAS

1.A ZERBITZU OPTIKOETAN

Erriko Kalea 3 • Tel. 909 09 90 09 • 48501

www.multiplicas.com

Prezioak berriak dira eta ez dira onartzen. Erabakiak erabakigarriak dira.

OPORTUNITATEA



Lehen **109 €**

Orain **79 €**

OPORTUNITATEA



Lehen **119 €**

Orain **79 €**

OPORTUNITATEA



Lehen **119 €**

Orain **89 €**

OPORTUNITATEA



Lehen **109 €**

Orain **79 €**

residencial
GÉMINIS

230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua bame



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak

- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 615 71 50 89 ELGOIBAR



ARGITARATZAILEA:

...eta kito! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Jairo Berbel

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihntza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kito!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kito!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

FARDEL.- Arlote, narras, baldar. "Fardel haundi bat eginda agertu da gurasuetara".
FARRA-FARRA.- Erruz, ugari. "Farra-farra darabill dirva, ez dakigu noiz arte".
FARRASTADA.- Igerian ematen den besakada. "Igarixan, farrastada luzia eban".
FARRA.- Zurkoitza, landaren euskarriztat zutunik ipintzen den makila. "Farria bihar da abar askokua".

ESKUTITZAK

HANDIENTZAKO PARKEA NAHI DUGU

Kaixo: Orain dela urtebete inguru Udalera karta bat idatzi genuen Legarre-gaineko parkean nagusia-goentzat ziburu batzuk jartzeko eskatuz. Sekula santan ez digute erantzun. Parkeko ziburuak margotu egin dituzte, eta ondo geratu da; baina dena lehen bezala dago, hori bai, txikientzat.

6-14 urtekoentzako parkea da eskatzen duguna. Herri guztiko parkeak txikientzat dira; mesedez, ipini bat Legarre-gainean, ganorazkoa, eta asko eskertu-

ko dizuegu.

Txikientzako ipini dezakezue nahi duzuen, baina 6-14 urtekoak ere hemen gaude. Lekua txikiegia bada, garaje gainean egin dezakezue. Baina handientzako parke bat, ahal baduzue tirolina txiki batekin.

MADDI, LORE, PERU, JOKIN, MIREN, AINHOA, KEPA, MARKEL, IRATI, JUNE...

EUSKARAREN EGUNAREN INGURUAN

Joan zen abenduaren 3an, Euskararen Eguna Eibarran ospatu zenuten guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu Udala eta ...eta kito! Euskara Elkartearen aldetik. Euskara danon ahotan, ume, gazte zein heldu, gure egin genuen Euskararen Eguna. Juan San Martinen Eztenkadak eta Zirrikadak liburuen pa-

sarteren bat irakurri zenuten 500dik gora lagunei eskerrak asko, eta baita entzule moduan egon zineten guztioi ere. Euskara gurea da-eta, denok elkarrekin egingo dugu bidea.

EIBARKO UDALA ETA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Alemanian gauzak egiten bezainbeste denbora, edo gehiago, gauzak nola egin pentsatzen pasatzen dute; sistemari eta funtzionamenduari garrantzi handia ematen diote. 'Liberalismo' izenda daitekeen betebeharren eta eskubideen arteko harreman zuzena eta antolaketa eraginkorra ikusi ditut, egunerokotasuneko kontu txikietatik hasi eta gauza garrantzitsuetaraino"
(Iñaki Soto, filosofoa eta zutabegilea)

"Badago animaliei buruzko dokumental batean biolentziatzko irudiak ez direla sartu behar diotenak. Baina nik egia esan behar dut. Behin emakume batek idatzi zidan esanez nire programek diru mordoa kostatzen zutela eta, lehoiek antilopeak zelan hiltzen zuten erakutsi beharrean, diru hori lehoiak belarjale izan daitezten trebatzeko erabili behar genukeela"
(David Attenborough, natura dibulgatzailea)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

EGUNKARIAREN ALDE

Abenduaren 19an 'Egunkaria Libre' goiburua izango duen manifestazioa egingo da Bilbon, 17.00etan eta bertara joateko autobusak antolatzen dihardute Debabarrenako euskara elkarteek elkarlanean. Eibartik 16.00etan irtengo diren autobusak ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuko ditu eta txartelak ...eta kitto!-n daude salgai (Urkizu, 11 solairuartea), 5 eurotan. Txartelak erosteko azken eguna abenduaren 16a izango da.

IGERILEKUA ITXITA

Zapatuan Ipurua kiroldegiko igerilekuan XXI. Igeriketa Gabon Kopa jokatu dela eta, Kirol Patronatoak aditzera eman du bihar 16.00etatik 20.00etara igerilekua itxita egongo dela.

ARTISAUTZA AZOKA

Abenduaren 18an zabalduko dute bosgarren urtez Gabonetako Artisauen Azoka, Eibarko Bizikleta Plazan. Urtarrilaren 5era arte martxan egongo den azokan Eibart artisauen elkarteok izango dira 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 21.00etara. 14 artisauk hartuko dute parte aurtengo azokan.

Errebal eta inguruak suspertzeko proposamena

EZKER BATUA-ARALAR KOALIZIOAK HERRIAREN ERDIALDEKO ETA BEHEKALDEKO MERKATARITZAREN-TZAT KONPONBIDE INTEGRALA proposatu du. Proposamena aurreko hilaren hasieran aurkeztu zuten Udalean, Hirigintza Batzorde Alhokulariak aztertzeko. Hasteko, herrien arteko garraiobideak zentralizatzeko premia ikusten dute eta, horren harira, Matsarian autobus geltoki nagusia kokatzea proposatzen dute, tren geltokikiarekin koordinatzeko aukerari bidea zabalduz. Bigarren puntu batean, "Errebalek altuera bi izatea aprobeztatzeko modukoa" dela diote. Proposatzen dutenaren arabera, "beheko solairuan eta Errebaletik sarrera ipinita merkatu plaza jaso liteke eta goitik, Merkatu kaletik sartuta hainbat ekitaldi antolatzeko aukera emango lukeen solairua eraiki.



Autobus geltokia, merkatu plaza eta parkea uzartzaren diu proiektuak.


Bestalde, umeendako gunea zein berdeguneak uzartzeko moduko parkea egiteko tokia geratuko litzateke". Eta hiru-garren puntu batean lur-azpiko txandakako aparkalekuak egitea proposatzen dute. Proposamena biribiltzeko, inguru

horretako kaleak ahal den neurrian oinezkoentzat egokitztea eskatzen dute.

Proposamen horri asteburuetan Matsaria eta Ego Gain lotuko lituzkeen peatonalizazioarako aukerak aztertzeko eskaera gehitu diote.

Pieza berria Armagintzaren Museoan

EIBARKO ARMAGINTZAREN MUSEOAK HERRIKO INDUSTRIAREN ATALARI PIEZA BERRIA GEHITU DIO: Eibarko Txirindularien Elkarteak dohaintzan emandako 'Echasa' 40ko hamarkadan Eibarren egindako bizikleta. Txirindularien Elkartearen egoitzaren atarian lagata zegoen bizikleta aurkitu eta Museoari eman zion. Bizikletaren koadroak "diamante" forma dauka eta eskuz margotuta dago. Fabrikatzailearen entseina dituzten eranskailuak ditu eta serie-zenbakia grabatuta dauka. Transmisioak plater bakarra dauka eta atzeko gurpil-abatzen,



Museoan aurretik ere badaude gure herrian egindako bizikleta eta motorrak.

alde bietan pinoiak ditu. Museoako arduradunek azaldukoaren arabera, "nabarmentzekoa da, garai hartako bizikleten ezaugarri bezala, ardatzen artean daukan distantzia handia eta pedalier kaxaren koipeztagailua. Berritze-lan handia egin ondoren, erakusketa gunean daukagu orain ikusgai".

Gerra Zibilaren ostean, 'Echave y Arizmendi' fabrikak arma industriari uko egin eta, herriko beste hainbatek egin zuten bezala, bizikleten eta metalzko altzairuen produkzioari ekin zion, marka desberdinak erabiliz. Horien artean Stark (1933) eta Fénix (1941) aipatu daitezke. Geroago, 1940ko hamarkadaren erdialdean, Echasa behin betiko izena hartu zuen lantegiak eta 1959an sozietate anonimo bilakatu zen "ECHASA, Echave eta Arizmendi, S.A." izenarekin; orduan eskopeta eta pistola automatikoen produkzioari berrekin zion tailerrak.

AKONDIA

Albaitari Zentroa
 Julen Arano / M^a Jesus Blanco
 Bittor Sarasketa, 12
 ☎ 943 12 74 15

Izadi

LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM



Hilero jarriko dituzte langabezi datuak jasoko dituzten kartelak. / EKHI BELAR

Langabeziaren kontrako kanpaina

EZKER BATUA-BERDEAK ATZO BERTAN AURKEZTU ZUEN DEBABARRENA OSOAN GARATUKO DUEN LANGABEZIAREN KONTRAKO KANPAINA: 'Noiz arte egongo zara isilik?' izenburuari jarraituz, herritarren mobilizazioa biltzen dute eta, horretarako, langabezian daudenen errealitatea gizarteratzeko asmoz, kartelak ipiniko dituzte kaleetan, horretarako egokitutako

guneetan, hilabetero herri ba-koitzean dauden langabetuen kopuruarekin. Eibarren une honetan 1.728 andra-gizon daude langabezian eta bizi duten egoera larriaren inguruko kontzientzia pizteko asmoz 12-15 kartel ipiniko dituztela iragarri zuten Eli Gómez Eibarko zinegotziak eta bailarako beste herrietatik gerturatutako ordezkariak, Enplegu Bulegoaren atean egingutako agerraldian.




Urte hasierarekin batera hasiko dira lanak. / EKHI BELAR

Errebalgo aparkalekurako aurreproiektua

ALKATETZAK JAKITERA EMAN DUENEZ, ERREBALEN APARKALEKUA EGITEKO AURREPROIEKTUA AURKEZTU DUTE.

Datorren urtean, urtarrilean hasiko dira merkatu plazak bete zueneko lurzoruan aparkalekua egiten eta hiru hilabeteko epea izango dute amaitzeko. Behin-behineko izaera izango duen aparkalekuak 98 automobilentzat tokia izango duela aurreikusten dute eta honako planteamentuari jarraitu nahi diote: 30 tokitan nahi den moduan aparkatzea eta gainontzeko 68 tokietan, berriz, txandatzea (automobila gehienez 90 bat minutuz aparkatzea).

anzorik anzo



Tren zerbitzua eten egingo da asteburuan

Eusko Trenek Eibar (Ardantza) eta Ermua arteko tren zerbitzua eten egingo du asteburu osoan, Sallobenteko geralekuaren eta Unibertsitate Laboraleko geltokiaren artean trenbidea bikoizteko egiten diharduten beharrak direla eta. Hala ere, ibilbidearen zati hori egin behar dutenek autobusa izango dute. Bilbo eta Donostia arteko ibilbidea egin behar duten bidaiariak Ermuko geltokian geratu beharko dute, trenetik jaisteko, eta bidaia autobusez jarraitu beharko dute. Donostiatik Bilborako norantzan doazenek, berriz, Estazioan irten beharko dira trenetik, han autobusa hartzeko.


Ordezko autobus zerbitzua egunez zein gauez (Bilbo eta Deba artean, zapatu gauean) egongo da indarrean. Autobus zerbitzurako geltokiak honako puntuetan egongo dira martxan: Eibar-Ermua norantzan, Estazio aldamenean, Ardantzan (Garmendia higiezinaren aldamenean), Amañan (gasolindegia ondoan), Sallobente (Gipuzkoa Etorbidea, 23), Errotaberrin eta Ermuan (Jator gimnasioaren aldamenean). Eta Ermua-Eibar norantzan, Ermuan (Jator), Errotaberrin, Sallobente (autopistako sarrera eta gero), Unibertsitatean, Armeria Eskolako autobus geltokian, Ardantzan (Untzagako taxi geltokian) eta Estazioan.

eibar kalea

Barakaldo kalea

Barrena kaletik gora, Urkizu aldera doan kalea da Barakaldo. Laburra izanda ere, erdialdera bidegurutzea dauka Asua-Errekarekin eta, parketxoaren aldamenean, Urkizu eskolarako sarreretako bat hartzen du.

Pegora kopurua: 20. Erroldatutakoak: 557.



asteko


820

datua

lagunek gainditzen dituzte 65 urteak Amaña inguruan, Udalak emandako datuen arabera, hortik Amañako dorreen inguruan jubilatu etxe berria zabaltzeko Udalean duten asmoa. Nagusi horietako asko, 366 andra-gizon, Tiburtzio Anituan bizí dira.

Olioa birziklatzeko edukiontziak

DEBABARRENAKO MANKO-MUNITATEAK ETXEAN ERABILITAKO OLIOA JASOTZEKO EDUKIONTZIAK IPINTZEKO ASMOA azaldu du, birziklatzea errazteko. Eraginkortasuna helburu, herriko kale eta auzoetan 17 bat edukiontzi ipintzea aurreikusi dute; eskualde osoan 60 edukiontzi banatuko dituzte. Herritarrek orain arte ere izan dute olioa birziklatzeko aukera, hilean birritan olioa jasotzera etortzen den furgonetara joanda, baina edukiontziei esker erosoago egingo zaio jendeari olioa birziklatzea.



Jose Ramon Orozko domekan hil zen

DOMEKAN HIL EGIN ZEN JOSÉ RAMÓN OROZKO ARRILLAGA TENORE EIBARTARRA, 87 URTE ZITUELA. 1921ean Eibarren jaioa, oso gaztetatik izan zuen musikarekiko zaletasun handia eta 11 urte besterik ez zuela, Eibarko musika bandako zuzendariordea zen Rafael Cañón-ekin ikasten hasi zen. Oso gazte sartu zen Eibarko Orfeoian, ondoren Donostiako Easo abesbatzeko kide izatera pasatzeko, eta Baionan egindako nazioarteko kantu txapelketan lehenengo saria jaso zuen. Soldadutza Zorrozan egiten zegoela, tenore izan nahi zuela erabaki zuen.

Operarako zituen dohainak ikusita, 1954. urtean Erromara joan zen, musika ikasketetan aurrera egiteko. Han egin zuen lehenengo agerraldia Elíseo antzokian izan zen, 'Il Trovatore' lanarekin eta, ondoren, Erromako ganberarekin Italiako hainbat herritan jardun zuen kantuan. Bere karre-raren hastapenetan Erromako Operako zuzendari Tulio Serafín-en laguntza izan zuen eta, horri esker, Milanen hainbat festibal eskaintzeko aukera izan zuen. Italian hainbat bira egin zuen eta RAI-n ere ibili zen aktuzioak eskaintzen.



Goian, Orozko Portaleko Musika Eskola zabaldu zenean; behean, tenorea Moreno Torrobarekin.

behar da: Alicanten izan zen mundu mailako estreinaldia, 1965ean, eta arrakasta benetan handia lortu zuen.

Lan ezagunetan ez ezik, bere sasoiko barito-

norik onenekin batera jardun zuen eibartarrak: Pablo Vidal, Renato Cherasi, Tomás Álvarez, Esteban Astarloa, Paco Kraus...

Bere lanaren errekonozimendu gisa, 1994an Donostiako Easo abesbatzak omendu zuen Eibarren. Eibarko Udalak ere bere lan batzuekin, 12 abestiz osatutako CDa kaleratu zuen eta Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak, berriz, ikasgeletako bati bere izena eman zion Portalean. Bestalde, bere heriotza dela eta, Euskara eta Kultura batzordeak atzo eman zuen ezagutzera herrian gabonen inguruan antolatu den musika egitaraua Jose Ramon Orozkoren omenez eskainiko dela.

Zentzuz erosteko aholkuak

KONTSUMITZAILEEN INFORMAZORAKO UDAL BULEGOAK HAINBAT AHOLKU HELARAZI NAHI DIE HERRITARREI, urte sasoi honetan "familien ekonomiak babesteko helburuarekin". Karlos González kontsumo zinegotziak dienez, "lehenengo eta behin, dirua zertan gastatu nahi den zerrenda batean ipintzea komeni da, lehenetasunei erreparaturaz. Daukagun dirua baino gehiago ez gastatzen ahalegindu eta sorpresa desatsegini ez hartzeko aurrekontua prestatu. Horrez gain, prezioak hainbat dendatan begiratu eta alderatzea lagungarria da". Erosketak azken unerako ez lagatzeak eta egunerokotasunetik aldentzen ez diren produktuak kontsumitzeak dirua

aurrezten laguntzen dutela gogorarazi nahi dute eta, horrez gain, badaezpada erosketatik gorde behar dela.



EN BOGA



IRUDI AHOLKULARITZA ZERBITZUA

**2010 KOLORE ETA MOZKETA
BILDUMA BERRIA PREST
DAUKAGU
ZATOZ ZURE ILEA "EN BOGA"
IPINTZERA**

**MANIKURA
ZERBITZU
BERRIA!**

**FROGATU GURE
PLATAFORMA
BIBRATZAILE BERRIA
10 MINUTU = ORDUBETE
KORRIKA EGITEN**

E S T I L I S T A S

eguerdietan ez dugu ixten
martitzenetik barixakura
9:00-19:00
zapatuetan
8:00-13:00



E S T I L I S T A K

*Nirekin
mozten zara?*

JOSU FIGUERAS
EN BOGAko ESTILISTA

KERATIN SHOT
TRATAMENDU BERRIA
ESKLUSIBAN

OROFLUIDO
GABONETAN
APAINDU ZAITEZ
MARKA ONENEKIN
**SEBASTIAN
WELLA
SALERM
TRUCCO MAKE-UP
S-FACTOR
ROCKAHOLIC**

PUNTA-PUNTA KO
KOLORAZIO TEKNIKAK
VIRGINIA MARKAIDEREN
ESKUTIK

943 70 20 24 ORDUA HARTZEKO. Urkizu Pasealekua, 11 Solairuarte EIBAR

Dentistak

odontologia
biologikoa eta orokorra
terapia neurala

miren albistegi sojo

arragueta, 2 - bis B
t. 943 208 330


T. Anitua 16, behea
Tel. 943 20 73 57



HORTZ KLINIKA

ARAT Hortz Klinika

Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura



Hortz-osasuneko
profesional talata
zure zerbitzura

eibartarren irribarrea pizten



Bista Eder
DENTAL CENTRAL - HORTZ KLINIKAK

Bista Eder, 19 - behea
Tel. 943 70 00 82
943 20 84 75

- ✓ Inplanteak
- ✓ Ortodontzia
- ✓ Zuritzea
- ✓ Hortz-estetika

grupo innova dental

Pedro Etxeberria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk.

Tfnoa: 943 20 72 17




GASTESI
Hortz-Klinika

Jesus M^a Gastesi - Ane Gastesi

Odontologia orokorra / Ortodontzia / Laser Teknologia

Bidebarrieta, 10-2. eskuina 943 70 00 90

RPS 04/02



IRAZABAL
clinica dental

J. Etxeberria, 12 - 1. esk.

Tel. 943 208552

A. Zulueta, J. Etxaniz eta S. Sierra DOKTOREAK

ZERBITZUAK: Ortodontzia - Protesiak - Inplanteak
Hortz-Estetika - Haurrentzako Tratamendua

OSASUN

BEGOÑA IZAGIRRE MENDIKUTE
DENTISTA

Untzaga 5 - 4. 943 70 23 85

EGUNERO



invisalign
Ikusten ez den ortodontzia

Ortodontzia
ume eta
helduentzat

M^a Dolores Olaizola Doktorea

EIBARKO ZENTRO MEDIKOA

Urkiizu, 13 (Orbeako Dorreak)
Telf: 943 120 200 - 943 425 706
www.marladoloresolaizola.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

RPS 336/05

Odontologiaorokorra
Ortodontzia
Inplanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

UNTZAGA
hortz-klinika

egunero

Untzaga, 2 - 1. Eskuma
Tfnoa. 943 70 25 92

Errehabilitazioa

CRF AMOSTEGI

ERREHABILITAZIOA



- * Fisioterapia /
Errekeraketa funtzionala
- * Logopedia
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Patronato
Eibarrés

Errehabilitazioa
eta Fisioterapia

ZENTRUKO SENDAGILEA: Ibarra doktorea

Urkiizu 9 - behean

EGUNERO (08.00 - 19.30)

Tfnoak. - 943 12 12 80 eta 943 12 03 58
Faxa - 943 12 03 58

Estetika klinika

abontza
clinica estetica

- Barizeak
- Kirurgia Estetikoak
- Dietetika eta Nutrizioa
- Gorputz Birmoldaketa
- Fotodepilazio Medikoa

Uzuegi, 6 beheko - Tel. - Fax. 943 906 044
www.clinica-abontza.com

Fisioterapia

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zbkia.

ARRAGUETA, 20
Tlf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

FISIOTERAPIA
ENEKO MAILAGARAI
901 kolegiatu zbkia.

San Agustin, 2-4 - M lokala
Tel. 622 14 58 58

FISIOTERAPIA

- fisioterapia
- osteopatia
- errehabilitazioa

Manu Sánchez FISIOTERAPEUTA

Juan Gisasola, 14
Telefonos: 943 12 70 78



GGDA

Kirol medikuntza

KIROL MEDIKUNTZA

Indartu
 ERREHABILITAZIO ETA KONSULTA ZENTRUA

- Odol analisiak
- Elektrotterapia
- Fisioterapia
- Urgentziak
- Esfortzu probak
- 3. adinekoen mantenimendua
- Konsulta medikoak
- Errekonozimendu medikoak
- Masaje terapeutikoa
- Kirol masajeak

ERA GUZTIZTAKO MUTUA ETA ASBEGURUEKIN KONTZERTATUA

Diputazio, 8-10 48260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
 Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net

Podologoak

- Kiropodia, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA
 124 kolegiatu zenbakia



HELBIDE BERRIA
 T. Etxebarria (DOS DE MAYO), 5 - 1. A
943 12 14 93

Psikologoak

AROR
 PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
 (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi eta Beatriz Ortueta

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Dislaliak
- Degluzio atipikoa
- Hizmoteltasuna
- Eskola arazoak

T. Etxebarria 10 - 6. esk. (EIBAR) Tel. 943 20 27 15
 Artakalea 30 - 2. B (DURANGO) Tel. 94 681 90 79

Okulistak


 Centro de Oftalmología Avanzada

- Jose Alberdi Alberdi

OKULISTAK
 EGUNERO ARRATSALDEZ

San Juan 11 - solairuaretea
 Tfnoa: 943 20 19 82



BIDEBARRIETA, 48
 EIBAR
 943 203050

ERDIKO KALE 54
 ARRASATE
 943, 799746

PODOLOGOA
 Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
 Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
 Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

UME ETA HELDUENDAKO
 PSIKOLOGIA
 KABINETEA


 Arrate
 Garitaonandia

HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO
 TRATAMENDUAK


Bidebarrieta, 27-B (3. ate) 943 20 22 66
 a_garitaonandia@terra.es


 Clínica Oftalmológica
RECALDE
 Oftalmologi Klinika

Plaza Barría, 2 - 2.
 Tfnoa: 943 201 844
 www.clinicarecalde.com

PODOLOGOA

Maidor
 Lopez
 Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea C
 Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologia klinika eta
 Psikoterapia zentroa



Oscar Mondragon Lili

Urkizu, 13 - behea
 Telf. 943 206823 eta 686 859023


PODOLOGO
 T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
 (Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Hemen zure tokia izan nahi baduzu
 deitu 943-206776 telefonora

Tokiko aldizkariak tradizio eta onarpen handia dute euskaldunon artean: duela 20 urte hasi ziren sortzen gaur egun ezagutzen ditugunak, euskararen normalizazioarako ezinbesteko tresna gisa. Denbora honetan etengabe garatzen, hobetzen eta profesionalizatzen joan dira, eta egunotan aurrerapauso garrantzitsua aurkezten ari dira haietako batzuk: tokiko aldizkariak elkarlana eta talde izaera azpimarratzera datorren TOKIKOM marka bateratua.

Topagunea Euskara Elkar-teen Federazioan bazkide diren 36 tokiko aldizkarietatik, 20k sortu dute TOKIKOM. Federazioko Hedabide Saileko ordezkariekin hitz egin dugu ekimenaren nondik norakoak eza-gutzeko. Eñaut Agirre (Hernaniko Kronika), Eneko Azkarate (Goienkaria), Xabier Goienetxe (Aikor!), Jasone Mendizabal (Topagunea), Koldo Mitxelena (...eta kitto!) eta Joxe Rojas (Topagunea) Topagunearen Hedabide Batzordeko kideak dira, eta hurbiletik jarraitu dute TOKIKOMen sortze prozesua.

– Zer da TOKIKOM? Nortzuek osatzen dute?

E. Azkarate.- Topagunean federatuta gauden euskarazko hedabide lokalok osatzen dugu TOKIKOM. Oinarrian, marka bat da, euskarazko tokiko hedabideok, eta gure ezaugarri eta balio komunak batzen dituen.

J. Rojas.- Topagunean ditugun azken datuek argi erakusten dute tokiko aldizkariak hedabiderik indartsuenak direla bakoitza bere esparruan. Baina hortik kanpo, hedabide bakoitza ezezagu-

na da bere mugetatik kanpo. TOKIKOMen asmoa hedabideon talde izaera eta kohesioa indartzea da, barrura zein kanpora begira. Tokiko hedabideen sektorea irudikatzen duen ikurra da TOKIKOM.

– Noizko Topaguneko hedabide guztiak TOKIKOMen barruan?

J. Mendizabal.- Tokiko hedabideen artean aniztasuna da nagusi, baita indar eta baliabideei dagokienez ere. Horren arabera, bazkideetako batzuek euren egoera finkatzeari begirako lehentasunak ezarri dituzte, eta TOKIKOMen sartu ala ez aurrerago erabakiko dute. Lehen momentutik aniztasun hori errespetatu nahi izan dugu marka berriarekin bat egiteko orduan ere. Seguru gaude epe ertainera hedabide bazkide guztiak egongo direla TOKIKOMen barruan, baina argi dugu bakoitzak bere erritmoan egin beharreko zerbait da, ezin dugu inor behartu.

– Zergatik eta zertarako sortu duzue?

E. Azkarate.- Jasonek esan duenez, Topaguneko euskarazko hedabideok anitzak gara,

maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionean; anitzak, era berean, askotariko iritziak jorratzen ditugulako, askotarikoak direlako gure irakurle eta ikusentzuleak. Baina badira guztiok komunean dauzkagun ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dugu, gai orotarikoak; masibo edo unibertsalak gara, hau da, populazio osoarendako lantzen dugu informazioa; liderrak gara gure esparruan eta tokian tokiko hedabide guztien baturak bihurtzen gaitu era berean lider (irakurrienak, ikusienak...) euskarazko hedabideen artean ez ezik, Euskal Herriko edozein hedabideren artean ere.

X. Goienetxe.- Ezaugarri komun horiek azpimarratzea eta indartzea da kontua. Aniztasunari uko egin gabe, talde izaera ere badugula gizarteratzea. Eibarko lagun bat beste edozein herritara joan eta bertako aldizkaria aurkitzen duenean, horrek bere herrikoarekin zerikusia duela jakin dezan. Eta elkarlanerako kanalak irekitzea ere bai, noski. Zenbait arlotako informazioa partekatzea eta, zergatik ez, guztiok batuta 220.000 ira-

kurle baino gehiago izateak ematen digun indarra hobeto baliatu ahal izatea ere bada gure helburua.

– Zer eskaintzen dio TOKIKOMek irakurleari, orain arte jasotzen ez zuena? Eta aldizkariari?

J. Rojas.- Hasteko eta behin, webgunea aipatu behar da. Hor irakurleak TOKIKOMeko aldizkari guztien titularrak jaso ahal izango ditu zuzenean, eta gehiago sakondu nahi izanez gero, jatorrizko iturrira, tokiko aldizkariaren webgunera eramango du webguneak. Gainera, RSS teknologia aprobetxatuz oso erraza da titular horien harpidedun egin eta albisteak hamaika formatu eta euskarri diferentetan jasotzea. Euskarazko tokiko informazio guztia begi kolpe batean ikusteko aukera eskaintzen dugu tokikom.com-en bidez.

E. Azkarate.- Paperezko produktuei dagokienez, berriz, aldaketa gutxi igarriko dute irakurleek oraingoz. Hedabide bakoitzak jarraituko du izaten, eurenengan nagusi, irakurrien, gertukoen, hurbilekoen... Aurrera begira, denondako berdinak izan daitez-



Argazkian, ezker-eskuin: Koldo Mitxelena (...eta kitto!), Jasone Mendizabal (Topagunea), Xabier Goienetxe (Aikor!), Eñaut Agirre (Hernaniko Kronika), Joxe Rojas (Topagunea), Eneko Azkarate (Goienkaria) eta Dorleta Vidal (Drogetenituri).

hurbileko informazioa, hurbiletik

keen edukiak ekoiztu eta hedabide bakoitzean txerta daiteke, informazio lokalaz gain, beste era batekoa ere eskaintzeko: Arrasate, Durango, Altsasu edo Tolosako irakurleak gustura jasoko duena. Aldizkariei, berriz, baliabide gehiago emango die besteen ibilbidea ezagutzeko, informazioa elkarrekin trukatzeko, gabeziak betetzeko, lan poltsa sortzeko eta publizitatea lortzeko orain arte eskuraezina zen lekuetan edota enpresetan. Publizitatea egin nahi duenarendako, aparteko euskarria da, mezuaz jende gehienengana heltzeko bidea. Tokikomen publizitatea kontratatzen duenak, aukera du hedabide askotan agertzeko eta inbertsio eraginkor eta errentagarriena egiteko, zabalkunderik handiena izango duelako.

– **Elkarrekin indar handia duzuela diozue. Zer esan nahi duzue horrekin?**

E. Agirre.- Lehen aipatu dutenez, TOKIKOMen gauden hedabideak oso indartsuak gara ba-

koitza bere esparruan. Beste edozein hedabide baino irismen handiagoa dugu, eta publikoak gurekiko atxikimendu handia du. Baina norberaren esparrutik kanpo ez gara ezer: Goienkariaren irakurle batek ez daki Hernaniko Kronika zer den. Horrek balioa kentzen digu, esate baterako, iragarle hanclengana jotzeko orduan. Enpresa handi baten zatitza, gutako bakoitza ez da ezer. Baina publizitatea taldeka eskainiz gero, beste indar positiboa batetik hitz egin dezakegu. 220.000 irakurletik gora ditugu guztien artean, eta horrek indar handia ematen digu. Iragarle handiak erakarrit, diru-sarrerak eta gure eragina ere handitzea espero dugu.

K. Mitxelena.- Eta horrek, gainera, produktuak hobetzeko aukera emango digu. Elkarlanean arituta, Enekok esan duen moduan, produktu osagarri komunak atera ditzakegu, umeentzako gehigarriak, denborapasak, zer dakit nik! Gainera, barne an-

tolakuntza eraginkorragoa egiten ere lagunduko digu: taldean arituz gero, gaur egun aldizkari guztietan egiten diren lan errepikatuek ekidin ditzakegu, eta gure baliabideak gauza berriak edota hobekiak egitera bideratu.

– **Zer produktu edo zerbitzu zehatzetan ikusiko da TOKIKOMen ekarpena?**

K. Mitxelena.- Aldaketarik agerikoena TOKIKOM ikurra bera da, kide diren hedabideen buruetan agertuko da: mantxetetan... Bestalde, esan dugunez, webgune bat izango dugu: Tokikom.com, non tokian tokiko hedabideek lantzen dituzten albisteak bisitatu ahal izango diren. Horretaz gain, publizitate eskaintza bateratua egin ahal izango dugu eta iragarle handiei eskainiko zaie euskarri ezin hobea helarazteko mezua ahalik eta jende gehiagorengana. Ez hori bakarrik: iragarleak aukeratu ahal izango du non jarri nahi duen bere mezua: hedabide guztietan edo komeni zaionetan:

TOKIKOM OSATZEN DUTEN ALDIZKARIAK ...**eta kitto!** (Eibar)
Aikor (Txorierri)
Aiurri astekaria (Beterri – Buruntza)
Aiurri hamaboskaria (Beterri – Aiztondo)
Anboto (Durangaldea)
Asteleheneko Goienkaria (Debagoiena)
Barren (Elgoibar)
Begitu (Arratia)
Berton (Mahatserría)
Drogetenitturri (Ermua, Mallabia)
Goienkaria (Debagoiena)
Guaixe (Sakana)
Hernaniko Kronika (Hernani)
Karkara (Aia, Orío)
Otamotz (Urretxu-Zumarraga)
Pil-Pilean (Soraluze)
Prest (Deustualdea)
Ttipi-Ttapa (Baztan-Bidasoa-Malerreka)
Txintxarri (Lasarte-Oria)
UK (Uribe Kosta)

herri konkretu batean, eskualde batean, lurralde batean...

E. Azkarate.- Horrez gain, gaur egun aldizkari askok egiten dituzte tokikotasunarekin zuzenean zerikusit txikia duten produktuak: haurrentzako gehigarriak, liburuak eta bestelako argitalpenak. Epe ertainera, TOKIKOMek aukera emango digu horrelako produktuen ekoizpena optimizatu eta zabalkunde aldizkari gehiagotara hedatzeko.



Ugaldea poligonoa, 11. Pabilioia 20170 USURBIL



**Bulego altzariak
eta materiala
PAPERDENDA**

Tel. 943 365892
Faxa. 943 371686
Mobila. 687 828590
fatima@manpel.com
www.manpel.com

EROSI MODA PUNTOAN

**PUNTOAN JANZTEKO
AUKERA:**

- Aparteko kalitatezko artileak: ingelesak, alemaniarak, italiarrak, etb.
- Mertzeria fina
- Osagarriak: mangafandak, bufandak, poltsoak, txano bereziak, ...

Artile

WWW.ARTILEPUNTO.COM
INFO@ARTILEPUNTO.COM
Bidebarrieta, 18 943-207227

TEEN-
AJEA

Afrikatik ibili zen Jairo Berbel abuztuaren erdialdetik hilabetez. Kongoko Kinsela herrixkan Tomas Medinabeitia misiolariarekin batera GKE batean aritu zen, hiritik 100 km-tara, sabanaren erdian, lastozko sabaia duten adobezko etxeen artean. Kan ateratako argazkiak erakusgai ditu Elgoibarko Kultur Etxean 13ra arte.

JAIRO BERBEL, argazkilaria:

“Afrikan erakusteko gauza asko dago”

- Nola sortu zitzaizun Afrikara joateko aukera?

Beti izan dut kooperazio bidaiaren bat egiteko gogoia. Gurasoei esaten nien gero eta herrialde pobregoa izan, gero eta arreta gehiago deitzen zidala. Orduan, Afrikan GKE batean lan egiten duen Elgoibarko parroko batekin kontaktuan ipini eta joan den udan bidaia egitera animatu nintzen.

- Zerk harritu zintuen gehien Kongo aldean?

Jendearen izaerak. Hiri eta herrixken artean ezberdintasunak zeuden. Hirietan txiroak txartoago bizi ziren. Herrietan bizi zirenek ere ez zeukaten ezer, baina jatorrak ziren, euren etxetara gonbidatzen zintuzten, zuten gutxiarekin zoriontsuak ziren eta eguneko beharrak egin ostean berriketaldiak izaten zituzten. Ez da ezer gehiago behar zorionsua izateko. Txiroak ziren, baina barrezka zeuden denbora osoan. Hala ere, hunkigarria da hura ikustea. Hirietan hiru dira dirua daukatenak eta besteak pobrezian murgilduta daude.

- Bidaia horren ondorioa da

orain ikusgai daukazu erakusketa. Zer islatzen duzu bertan?

Argazki asko atera nituen, baina erakusketan umeenak jarzea erabaki nuen. Umeen aurpegiek dena islatzen dute. Bazuetan tristura, besteetan poza, umeek ez dute ezer izkutatzen.

- Erakusketa zen bidaiaren xedea?

Ez. Beti gustatu zait argazkiak ateratzea eta, adibidez, askotan joan naiz mendira kamerarekin. Aitak argazki-erreportaiak egiten ditu eta bere kamera ona Afrikara eramateko konbentzitu nuen. Pentsatzen dut Afrikan edozeinek atera ditzazkeela argazki onak, ezberdinak gutxienez. Erakusteko gauza asko dago han. Etsita gelditzen zara han, eta tristura hori erakutsi nahi nuen.

- Amarekin elkarbanatzen duzu erakusketa. Nola moldatu zarete?

Lokala zati bitan banatu dugu, bata bere margoekin eta bestea nire argazkiekin. Arreta deitzen du, eta nire iritziz polita gelditu da, formatu bien arteko uztarke-ta, gutxienez, ezberdina da.

eramateko
janaria

come
Zuloagatarren, 7
943 03 01 87

- Eguneko menua
- Plater prestatuak
- Postrea, ogia eta edaria
- Zapatu eta domeketa errezabalik



NORMAN: rock psikodeliko iluna

Bere musika bezala, azkar doa Norman musika munduan maldan gora. Erritmo bizian. Urte bi besterik ez ditu talde eibartarrak, baina Danbaka eta Bilbo Hiria bezalako lehiaketetan emaitza bikainak lortu ditu eta orain diskoa kaleratu du. 'Norman'. Psikodeliaz beteriko disko iluna.

Taldeari gertatu zaion guztiak harritu gaitu". Horiek dira Norman taldeko Alexen berbak. "Legarreko lokaletan abestiak jotzeko besterik ez ginen hasi, inolako intentzio handirik gabe, baina poliki-poliki gauzak irten zaizkigu". 2007an sortu zen Norman eta ordutik arrakastaren bidea hartu du lehen diskoa kaleratu arte. "Danbakako finalean egon ginen (ez genuen espero), ondoren Bilbotik deitu ziguten hango lehiaketan parte hartzeko eta kritika onak jasotzen ditugu. Pozik gaude".



Hamaika abesti

Durangoko Azokan eskuragai egon zen 'Norman', talde



eibartarraren lehen diskoa. "Ez dakigu nola doan salmenta. Azokan aurreko edizioetan baino jende gutxiago ibili dela esan digute, besterik ez".

Alexen berbetan influentzia ezberdinak dituen taldea da Norman. "Rockaren barruan kutsu psikodelikoa daukagu



eta diskoa nahiko iluna irten da. Badauka baita hardcore puntu bat ere". Guzti hori kontuan izanda, zera eranstean du: "Anitza da, aberatsa".

Lehen diskoa du hau Normanek eta zati bitan grabatu dute. "Lehenengoa, 2008an grabatu genuen sei abestire-

kin. Maketa moduko hori Gaztelupeko Hotsakera eraman eta gustatu egin zitzairen. Horrela, bigarren zatia osatzen duten bost abestiak grabatu genituen eta diskoa osatu zen".

Legarreko lokaletan egin zen diskoaren grabaketa Ander Barriusoren laguntzarekin. "Laguna dugu eta hori abantaila izan da. Lasaiago ibili gara eta eboluzionatzeko errazagoa da horrela lan egitea".

18an Ryderren


Diskoa kaleratu berri, kontzertuak eskainiko ditu Normanek euren lana ezagutzera emateko. Abenduaren 18an, adibidez, Eibarko Ryder tabernan arituko dira 'On Benito'-rekin batera, 25ean Urretxuko Gaztetxean, 26an Elorrioko Gaztetxean, urtarrilaren 15ean Sorluzen eta 16an Berri-zen, momentuz. "Kontzertuen kontuak ere harritzen gaitu. Bat eskaini eta beste batean aritzeko eskaintzak jasotzen ditugu. Zuzenekoan indarra daukagula aipatu digute". Zuzenekoan eta diskan, Norman beti Norman.

Asteartera Eibarko alkateak HAMAIKA BERBA Irratsaloan orantzungo ditu, eguardiko 12.30etan. Zure kezka, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm



ZINTZILIKARIOA:
10 euro



ZINTZILIKARIOA:
18 euro



ZINTZILIKARIOA:
8,20 euro



BELARRITAKOAK:
30 euro



ESKUMUTURREKOA:
7,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
7,50 euro



ESKUMUTURREKOA:
34 euro



AHOZAPIA:
3,30 euro

AMANTALA:
20,70 euro



ARDILATXA KATILUA:
6,90 euro



HIGROMETROA:
25,50 euro




UMEAK:
2, 4, 6 eta 8
18 euro

NAGUSIAK:
M, L, XL
23 euro

MAHAI-OIHALAK:
180x200: 48,10 euro
180x250: 60,50 euro
180x300: 70,20 euro

NAGUSIENDAKO
BAINU-BATA:
S, M, L, XL
67,50 euro



JAIOBERRIENDAKO
TOALLA:
17,60 euro



TOALLAK:
30x50: 7,30 euro
50x100: 14,50 euro
70x140: 24,20 euro
100x150: 34,80 euro



Etorri Olentzerori zerranda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
10.00/13.00 eta 16.00/20.00. Zapatuetan: 10.00/14.00

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU

...eta Euskara E Gabon KATA

kitto! kartearen metako LOGOA

Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzen erabiliko
ditugu



EGURREZKO
OPARIAK



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,75 euro





UMEENDAKO
BAINU-BATA:
2, 4, 6, 8
44 euro



Iruñeko
KARRIKIRI
Euskara
Elkartea

ARGUA EGIN!

DISKA, DVD, MAHAI-JOKO ETA LIBURUAK



BESTE DISKA, DVD ETA JOKOAK:

69 abesti jolasteko (16 euro); Aiko (10); Anari (14,60); Asko maite zaitut (13,40); Auñamendi (18,80); Betagarri (16); Bulun-bulunka (13,40); Euskal Herriko Mapa erliebean (106); Egizu lo (16); Egutegia 2010 (8); Elbereth (12); Euskara Jendea (32); Etxe (13); Fermin Muguruza Remix (12); Gari (16); Goazen (12,95); Gose 3 (14,60); Gu Ta Gutarrak (15); Handitzen Handitzen (13,40); Kantiruri (18,50); Katramila (25); Ken Zazpi (18,50); Kerobia (8,30); Kudai (12); L.Iriondo+X.Lete (13,40); Malenkonia (14,60); Mendeku Itxua (12); Mihiluze (35); Mikel Laboa Gernika zuzenean (16); Mikel Urdangarin (13); Norman (14); Olentzero DVD (12,95); Orhipean (24,50); Patxi eta Konpainia (14); Pello eta Osoa (20); Petti (9,50); Piztiak (14,60); Ruper Ordorika (16); Su Ta Gar (22); Txikia izanik (13,40); Zaharregia Txikiagoa (20); Zeren Zai (15,75); Zinema Etxean 3 DVD (36).

'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' EUSKERIAREN EGUNA *ospatzeko*

500DIK GORA LAGUN
08.00ETATIK
20.00ETARA,
TARTEAN:

Miguel de los Toyos
eta Iñaki Arriola
Urkotronik
Caixa
Pilar Pujana
Unibertsitate Laborala
Institutoa
Armeria Eskola
Aldatze
La Salle
Urkizu
San Andres
Mogel Isasi
Itzio
Leire Narbaiza
AEK
Eibar FT
Carmen Larrañaga
eta Mertxe Garate
Urbat
Dibujo Eskola
Jaz Zubiaurre
Zeramika Eskola
Eibar Rugby Taldea
Herri Irratia
Dendarien Elkartea
Liburutegia
UEU
Euskara mintegia
Klub Deportiboa Kultura
Badihardugu
Goruntz
Gureak
Arrateko Andra Maria
Amaña
Aldatze
La Salle Isasi
Iturburu
...eta kitto!
Eibar.org
Amañako Jai batzordea
Galiziako Etxea
Asun Gartzia
Partehartze mahaia
Revista Eibar
Andirao
Arrate Kultur Elkartea
Klub Deportiboa Mendia
J.L. González "Poxpolo"
Udal Euskaltegia
Astixa
Errota gaztelekua
Club Ciclista Eibarres
Bertso Eskola Hankamotxak
Mario Onaindia Fundazioa
Kontxi Kerexeta
Tekniker
Kezka
Ikasten
EHE
Museoa
Klub Deportiboa Pilota
Sostoa
San Martin familia
eta Julen Zabaleta
...




Urkotronik



Udal Euskaltegia



...eta kitto!




Gureak



Eibar Foball Taldea




EHE



Arrateko parrokoa



Armeria Eskola



Andirao



AEK




Benetan arrakastatsua izan da aurtengo Euskararen Egunerako antolatutako ekitaldixa: beste urte batzuetan be antolatu izan dira jarduera berezixak Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunian, baiña oiñ arte egindakuetan ez da lortu aurreko eguenian jasotakua moduko erantzun zabalik. Beste herri batzuetan eta bestelako ospakizunak goguan egindakuak eredu modura hartu dittue aurten Udalian eta 12 orduta jarraixan eibarreraz idatzittako lan garrantzitsu bi etenbarik irakortzen emon eben eguna eibartar askok. Danera 500 bat lagunek ozenki irakorri zittuen Juan San Martin zanaren lumatik urtendako 'Zirikadak' (1960) eta 'Eztenkadak' (1965) umorezko liburuen pasartiak. Irakorlien artian, gaiñera, edade eta kondiziño guztietako lagunak izan ziran: ikastetxiak, kirol taldiak, alderdi politikuak, dendarixak, taillarrak, kultur arloko taldiak, euskalgintzakuak, jai batzordietakuak, bertsolarixak, dantzariak... benetan ordezkaritza zabala. Ekitaldixaren amaieran, gaiñera, Oier San Martin liburuen egilliaren semiak eta Julen Zabaleta Kuliska sortaren barruan kaleratutako liburu bixetan agertzen diran dibujuen egilliak jardun eben.




Badihardugu




Caixa




Eibar.org



Marijose Telleria



Kezka



Arriola eta De los Toyos



UEU



Mogel Isasi

Katearen Eguna ospatuko da bihar eguerdian Portalean



URTEROKO OHITURARI JARRAITUZ, EUSKAL BIZIKLETA KIROL ELKARTEAK Katearen Egunaren edizio berria antolatu du bihar eguerdirako. Portalean egingo dute, beste

behin, zita eta han izango dira gure eskualdeko hainbat txirrindulari profesional, tartean Igor Astarloa, Pedro Horrillo, Mikel Pradera, Aitor Galdos, Aitor Hernández, Amets Txurruka eta

Igor Romero. Ekitaldia aprobeztatuz, Kirolgi, Debabarrena eta Solozabal Autoeskolak mailloketekin parte hartuko duten taldeen aurkezpena ere egingo da: hor izango dira nesken elite UCI mailakoa eta mutilen 23 urtetik azpikoena.

Usobiagari omenaldia

Ekitaldiak une berezia izango du, Patxi Usobiagari egingo zaion omenaldiarekin. Eskaladako munduko txapeldunaren denboraldia saritu nahi dute antolatzaileek. Hainbat irudi dastatzeko aukera ere izango da biharkoan, denboraldi honetako Euskal Herriko Itzuliaren

eta Donostiako Klasikoaren irudiekin jantzitako bideo emanaldian. Txirrindularitza inguruan diharduten txirrindulari, babesle eta kolaboratzaileendako oroigarria ere gordeko dute antolatzaileek.

Ekitaldia eguerdikoa 12.00-etan hasiko da, aipatutako talde bietako txirrindularien aurkezpenarekin; jarraian, bideo emanaldiaren ordua izango da; ondoren, omenaldia egingo zaio Usobiagari; eta, amaitzeko, aurtengo ekintzen laburpena eta datorren urteko proiektuen aurkezpena egin eta gero, plaka eta oroigarriak banatuko dira.

Amaitu da Gipuzkoako xake txapelketa

Zapatuan Zarautzen amaitutako Gipuzkoako txapelketa nagusian, Diego Olmo izan da Klub Deportiboko ordezkari onena, azkenean 6. postuan sailkatuz. Bere atzetik geratu zen Haritz Garro, justu 7. postuan; Edu Olabek 14. tokian amaitu zuen bere lehenengo txapelketa nagusia eta Julen garro eta Jon Arana atzerago sailkatu ziren.

Osasuna B bisitatuko du Eibarrek bihar 17.00etan

EIBAR KE-K OSASUNA BREN AURKA JOKATUKO DU BIHAR 17.00ETAN TAXOAREN. Hiru partidu jarraian daramatza irabazi gabe Angel Viaderok zuzentzen duen taldeak eta bolada txarra gainditzeko asmoarekin bidaiatuko du Iruñea aldera. Osasuna Bk, bestetik, ez du galdu azken lau jardunaldietan.

Jokalari armaginak, bestetik, ez dira bakarrik egongo Taxoa-



Eibarrek garaipen bidera itzuli nahi du lehenbailehen.

ren. Izan ere, Eskoziako La Brava eta Premier bidai-agentziak bidaiak antolatu dute partidua ikustera joan ahal izateko. Autobusa 10.15etan irtengo da Ego Ginetik eta neurketa


amaitzean itzuliko da. Izena emateko epea bihar amaituko da eta txartelaren prezioa 13 eurokoa da. Apuntatzeko Premier bidai-agentziara joan edo 943 821850 telefonora deitu.

Hierros Anetxeren porrota Bartzelonaren aurka

AITZAKIARIK GABEKO PORROTA JASAN ZUEN EIBAR HIERROS ANETXE RUGBY TALDEAK FC Bartzelonaren aurka Unben. 5-34 galdu zuten eibartarrek eta talde bien arteko ezberdintasuna erakusten du emaitzak. Talde biak dira igo berriak, baina armaginak azken postuan dauden bitartean, kataluniarrak bigarren doaz.

Hasieratik gailendu zen jokoan Bartzelona eta 0-17 amaitu zen lehen zatia. Bigarren zatian gogotsu erasotzen hasi ziren eibartarrak, baina defentsan komerriak. Horrela, bartzelonarrak lau entsegu gehiago lortu zituzten eta partidua amaitzeaz zela egin zuen bere entsegua Eibarrek.

IPURUA KLUBEKO GIMNASTAK VALLADOLIDEN EGITEN ARI DEN ESPAINIAKO TALDEKAKO TXAPELKE-



Ipuruako gimnastak Espainiako taldekako txapelketan

TAN DABILTZA atzotik domekara arte. Talde eibartarreko infantilek, seniorrek eta lehen mailako hamasei gimnastek dihardute txapelketan.

Iaz Zaragozan lortutako titulua defendatuko dute lehen mailako Miriam Merino, Jaione Tejedor, Helena Jauregi, Maider Jimenez eta Patricia Afonsok. Seniorretan, bestetik, 2007an Granadan lortutako brontzezko domina lortu zuten neskek arituko dira. Eta infantilak, azkenik, Euskadiko Txapelketaz geroztik lortutako emaitza onak berresten saiatuko dira.

Bolunburu Memorialaren 60. edizioa jokatu da domeka goizean

ZAZPI LASTERKETA IZANGO DU GUZTIRA EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ATLETISMO BATZORDEAK antolatzen duen probak. **Goizeko 10.00etatik aurrera**, atletismo giroa nabarmenduko da Arrateko Olabeko zelaian, handik ordu laurdenera jokatu baita lehenengo proba, hainbat mailatako parte-hartzaileak batuko dituena (gizon heldu, jubenil eta kadeteekin batera, emakume juniorrek hartuko dute parte bertan); 4.300 metrokoa izango da. Bigarren lasterketa 10.40-etan hasiko da eta hor ere hainbat mailatakoek jardungo

dute, denak emakumezkoenak (helduak, jubenilak eta kadetak); horko distantzia 2.400 metrokoa izango da. Hirugarrenean infantil mailako gizonak eta emakumeek jardungo dute kilometro biko luzerako lasterketan, 11.00etan hasita. Handik ordu laurdenera, sexu bietako parte-hartzaileekin ere, alebin mailakoek kilometroa beteko dute. 11.30etan, bestalde, junior mailako gizonetakoekin batera, promesa eta senior mailako emakumeek hartuko dute irteera 5.200 metroko ibilbidea osatzeko. 12.00etan gizonetakoekin arteko promesa eta se-



nior mailakoek jardungo dute 8 kilometroko norgehiagoka burutzeko. Eta, azkenik, ordu bata laurden gutxiagoetan, herriko benjaminen ordua izango da: hor maila horretako neska-mutilek amaiera emango diote

goiz osoko jardunaldiari, 800 metroko lasterketarekin. Lasterketa guzti horietarako, hiru zirkuitoko ibilbidea prestatu dute antolatzaileek: 400, 500 eta 1.000 metroko distantzia dituztenak.

Pelota partiduak kiroldegian

GOIZEKO 11.00-ETAN HASITA, GIPUZKOAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETAKO partidu bi jokatu dira bihar Ipuru kiroldegian. Txapelketaren 2. fasean sartuta, Ruiz (edo Larrauri) eta Andonegik Zarauzko ordezkariak aurka jokatu dute kadeteetan; eta, jarraian, seniorretan, Unamunza-

ga-Agirrebeña Deportiboko bikotea Arrasatekoa gaintzen ahaleginduko da. Egañari kanpora joatea egokitu zaio, buruz-buru zapatu goizean Andoingo ordezkariari aurre egiteko. Eta infantil mailako Narbairzak eta Fernandezek ere buruz-buru jokatu dute, Deba bailara eta Goierriko torneoan.



Arrate-Torrevella garrantzi handiko neurketa bihar Ipuruan

VIGON BERDINDU ETA VALLADOLIDEN GALDU ONDORREN, Asobal Ligako Arrate Torrevella aurkari zuzena jasoko du bihar, 18.30etatik aurrera, Ipuru kiroldegian. Jokoa egongo diren puntuak garrantzi handikoak dira talde bientzat jaitzierako azken postu bietan ez erortzeko lehia horretan, sailkapena asko estutu baita sailkapeneko behe aldean. Julian Ruizek zuzentzen duen tal-

deak erregulartasunaren bila dihardu, partidu gehienetan gorabehera ugari izan baititu orain arte.

Arrate Kiroljokoarekin

Erakunde biek lankidetzan adostasun batera iritsi dira, atzo aurkeztu zuten. Isasin egindako ekitaldian, Iñaki Bolinaga presidentea eta Cutura eta Berrios jokalaria izan ziren Kiroljokoa-ko ordezkariak.



Agirresarobe eta Erik, jubenilen torneoaren txapeldunak, 22-13 irabaziz.



SM MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA

San Juan, 15
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24



KATU



KALE

BIDEBARRIETA, 1

TABERNA

Eibarko Euskara sarean

DATORREN EGUENEAN, HILAREN 17AN AURKEZTUKO DU UDALAK EUSKARARI ESKAINITAKO WEBGUNE BERRIA Portalean, 19.00etatik aurrera. Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta, Eibarko euskararen zabalkunderako webgune egoki bat sortzeko beharrendu jardun du lantalde batek: Ane Sarasketarekin batera lehendik sarean zegoen webgunea berritzen ibili dira Asier Sarasua, Eli Kruzeta, Serafin Besauri, Leire Zenarruzabeitia eta Antxon Narbaiza. Webgune berriak Eibarko Euskeriaren Hiztegi horren bertsio osatu eta txukundua eskainiko du, baina, horrez gain, euskararekin lotutako albisteak jaso eta eskainiko ditu. Eibarko euskarazko hainbat argitalpen, katalogoa, Euskara Biziberritzeko Planaren nondik norakoak, ahotsak.com helbidera lotunea eta beste hainbat berritasun izango ditu webguneak.



Lehendik sarean zegoen webgunea berritu du lantaldeak.




Erakusketa berri biren inaugurazioa

GAUR ARRATSALDEAN HASI ETA URTARRILAREN 3RA ARTE ERAKUSKETA BI HARTUKO DITU PORTALEKO ERAKUSKETA ARETOAK.

Batetik Alberto Rementeria Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren fakultateko irakasle eta artista eibartarraren 'Consecuencias' izenburukoak margolan koloretsuak eskainiko dizkie ikusleei. Urteak igaro dira Rementeriak bere lanak herrian erakutsi zituenetik; gaur arratsaldean zabalduko duen erakusketa orain dela urtebete Bilbon izan zen ikusgai,

BBK-ren kultur aretoan. Rementeriaren lanekin batera, Mugarik Gabeko Medikuen erakusketa ibiltaria egongo da ikusgai: 'Crisis olvidadas: vidas ignoradas' izenburuko erakusketaren ardatz nagusiak gatazka armatuek eta izurriteek osatzen dute eta, besteak beste, Somalia, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Txetxenia, Kolonbia, HIESa eta Chagas-en gaixotasuna gerturatuko dizkigu. Erakusketak ohiko ordutegian bisitatu daitezke, martitzetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.




Deabru Beltzak konpainiaren lana da 'Gabon kontuk'.



'Gabon kontuk' Coliseoan

DEABRU BELTZAK KONPAINIAK UMEENDAKO ISTORIO ERAKARGARRIA TAULARATUKO DU DATORREN ASTEBURUAN, hilaren 19an: 'Gabon Kontuk'. Funtzio bikoitza izango da: lehenengo emanaldia 11.00etan izango da eta bigarrena, berriz, 12.30etan, biak ere Coliseoan. Olentzero, Mari Domingin eta umeak izango dira ikuskizun horren protagonista nagusiak eta sarrerak alde aurretik eskuratzeko aukera izango da, 5 eurotan (edo Eibar Merkataritza Gune Irekiko bonoa erabiliz gero, euro bat ordainduta).



Euskararen Eguna gogoan


ABENDUAREN 3-AN, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNAREN INGURUAN EKITALDI UGARI ANTOLATU ZIREN

Euskal Herrian zein gure mugetatik kanpora ere. Eibarren lehenengoz orotariko taldeetako ordezkariak zabala izan zuen ekitaldi batearatu egin zen udaletxean, Juan San Martinen 'Zirikadak' eta 'Eztenkadak' lanak etenbarik irakurrita, baina, horrez gain, askok ekitaldi bereziak burutu zituzten maila xumeago batean. Hainbat argazki helarazi dizkiguten Uni Eibar-Ermua institutuko irakasle eta ikasleek, adibidez, herri-kirolen inguruko lehaketa jokatu zuten.

Eibarko Zezenketen inguruko dokumentala

ABENDUAREN 18-AN, 20.00ETAN EIBARKO ZEZENKETEI ERREPASOA EMATEN DION DOKUMENTALA ikusteko aukera izango da Coliseoan. Eibarko Zezenzaleen Batzordeak eta Eibarko Bifashion Productions ekoizetxearen produkziarako sarrerak euro bi balio du eta ohiko bideei jarraituta eros daiteke. Gidoia Eneko Anduezarrena da eta Ibon Uzkudun kazetariak zuzendu du 90 bat minutuko iraupena duen lana. Dokumentalak Eibarko zezenketen historiari errepasoa ematen dio, Erdi Aroan hasi eta gaur egune-

ra arte (zezen plaza agurtzeko egin zen azken zezenketa barne). Narrazioa, berriz, protagonisten ahotik entzungo da. Besteak beste Antxon Iraolagoitia, Juan Mari Lejardi 'Pastor', Ignacio Larrarte eta Juan Ortega daude 32 elkarrizketatuen artean. Horrez gain, Antonio Sarasua fondo-ko irudiak batu dituzte, argitaratu gabeko hamai-ka argazki eta agirirekin batera. Musika, berriz, Cielito Musika Bandarena da. Coliseoan estreinaldia eskaini eta gero, herriko dendetan DVD formatoan erosteko aukera egongo da (10 euro).



Ander Agirrebeña Topalekuan

DOMEKARA ARTE EGONGO DIRA IKUSGAI ANDER AGIRREBEÑA EIBARTARRAREN ARTELANAK Topalekuan, Arrate Kultur Elkarteko erakusketa aretoan. Hainbat argazkiz osatutako bilduman, hainbat teknika eta erreminta erabilita artistak lortutako emaitza ikusgarriak nabarmen geratzen dira. Gaur 19.00etatik 21.00etara egongo da zabalik eta bihar eta etzi, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.

Gabon Kantuz, domeka eguerdian


GIPUZKOAKO ABESBATZEN ELKARTEAK ANTOLATUTA, SOSTOA ABESBATZAK KONTZERTUA ESKAINIKO DU domekan,

12.30etan Coliseoan. 'Gabon Kantuz' izenburua izango duen kontzertuan Gipuzkoako beste abesbatza bik hartuko dute parte, eibartarrei laguntzen. Sarrerak 3 euro balio du eta honez gero erosteko moduan daude, lehiatilan bertan zein gainontzeko salmenta bideei jarraituta.



Helmholtz organoaren kontzertua

URTEROKOARI JARRAITUZ, HELMHOLTZ ORGANOAREN KONTZERTUAREKIN GOZATZEKO aukera izango dugu. XIII. edizioa beteko duen areto-organo kontzertua Coliseoan izango da, abenduaren 17an, 20.30etan eta sarrerak euro bi balio du.



Guai parkerako bonoak

ABENDUAREN 26AN ZABALDUKO DUTE GUAJ GABONETAKO HAUR PARKEA ARMERIA ESKOLAN, urtarrilaren 4ra arte, baina egunero sartu ahal izateko bonoak abenduaren 13an (domekan) eta 14an (astelehenean) salduko dituzte, 11.00ak eta 13.00ak bitartean Portalean (18 euro). Bestela, egun bakarrerako sarrerak parkean bertan erosteko aukera izango da (3'5 euro). Parke iraunkorren 9 atrakzio egongo dira, 2 eta 12 urte bitarteko umeentzat. Besteak beste, zezen mekanikoa, ohe elastikoak, puzgarriak, taillerak eta lehiaketak egongo dira martxan goizez zein arratsaldez.

laburrak

BERTSOLARI TXAPELKETARAKO AUTOBUSAK

Domekan, Euskal Herriko Bertsolari finala dela eta, bertara autobusez joateko txartela eskuratu dutenei jakinarazi nahi zaie autobusa goizeko 08.30etan Ego Gaineko autobus geltokitik irtengo dela.

ARATOSTEETARAKO BILERA

2010eko Aratosteetako egitarauaren prestakuntzan parte hartu nahi dutenentzat bilera deitu dute martitzenerako (abenduak 15), 19.00etan, Portaleko 3. pisuan (ikastaro gelan).

EA-KOEN LOTERIA

Eusko Alkartasunak Gabonetako loteria ipini du salgai eta, urteroko moduan, erosi nahi duenak alderdiko afiliatuei eskatu beharko die. Abenduaren 15era arte egongo da erosteko aukera.

Zer begittantzen jatzuz Gabonetako argixak?




SEVERINO PATO
58 urte
jubilaua

Nahiko pobriak ikusten ditud argixak. Ez dabe argi gehixegi emoten eta begittantzen jata aurreko urtietan ipiñi zittuztenak polittaguk zirala. Gaiñera, kale batzuk ixa ez dake argirik eta beste batzuk asko dake. Gehixago banatu biharko ziran kalien artian.

CONCHI RODRÍGUEZ
66 urte
etxeoandria

Zatarrak dira; ez jataz bape gustatzen. Gabonetako argazkixak ipintziarena eta Gabonak orokorrian komertziuari begira egitten dan zerbait dala begittantzen jata, beste barik. Ahal izango baneban, alde egingo neban sasoi honetan. Gaiñera, oparixekin eta gastua haundixa da.



LUIS URKIDI
88 urte
jubilaua

Nahiko makaltxuak dirala begittantzen jata. Polittak dira, baiña argi gitxi emoten dabe. Halanda be, ondo ikusten dot Gabonetako argixak ipintzia, Gaboneri zer bat emoten detselako, zeozer berezixa. Holan, argi bizixaguak ipiñi biharko ziran.

SOLEDAD JORGE
77 urte
etxeoandria

Polittak dira, baiña hobe Donostian moduan argixa bizikletaren pedalei eragiñez sortzia. Ez dabe hainbeste ipiñi: goikaldian asko eta Azittainen bakarra. Gabonak polittak dira, baina antxiña argi barik be ondo ospatzen genituan. Oin Jaungoikuan be ez dau sinisten jendiak.



Optika Berritu

Godo arrazun irakurri biltzarrean

Ampilfon-ek, entzumen-konponbideetako munduko iderrak, honakoa eskaintzen ditu:

- Entzumen-azterketa daan
- Probatu audifonok daan 30 egunee
- 50%ko deskontua edoan audifono errotentzue
- Daizeta, erabilizale banda, zure audifonuzue azterketa daan ugin eta pila pikare bat oparizue daizue.

OPTIKA BERRITU - JULIAN (TARRITENA, 13)
ZENDOTARRA - 943 70 02 30
(Bilatu zurea telefono 943 70 02 30)

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba


- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea


TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunena bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MARTXEL, domekan urte bi beteko dozulako. Muxu haundi-haundixa gure txikituari, aitta, ama eta Iraiaren partez.



Zorionak, IDOIA, hillaren 2xan urte bi egin zenduazena-eta. Guraso, famelixa eta, batez be, Xabierren partez.




MADDI, etxeko printzesitak bi urtetxo betetzen ditte. Zorionak eta patxo potolua, famelixako guztien partez.





PATXI Basaras Pérez, etxeko txikixak, urtebete egitten dau gaur. Zorionak eta patxo goxua, famelixako guztien partez.

JAIOTAKOAK

- Haizea Delgado Gisasola. 2009-XI-27.
- Izar Osoro Lasagabaster. 2009-XI-29.
- Alejandro Marcos González. 2009-XII-1.
- Eider Rojano Herrero. 2009-XII-2.
- Lucia Sierra Prieto. 2009-XII-3.
- Ainhoa Egurrola Zubizarreta. 2009-XII-4.
- Ander Martínez Jordán. 2009-XII-7.
- Martin Elortza Errasti. 2009-XII-7.



Zorionak, EIDER eta IZARO, hillaren 7xan eta 9xan bi eta bost urte bete dozuez-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, atzo hiru urte egin zenduazelako. Muxu haundi bat Mikelen partez.

HILDAKOAK


- M^a Pilar Soroa Oroz. 86 urte. 2009-XII-3.
- Jose Ramon Unamuno Etxeberria. 67 urte. 2009-XII-3.
- Javier Unzetabarrenetxea Berasaluze. 66 urte. 2009-XII-3.
- Jose Ramon Orozko Arrillaga. 87 urte. 2009-XII-6.
- Pilar Mantecón Cueto. 89 urte. 2009-XII-6.
- Javier Elkoro Azpiazu. 74 urte. 2009-XII-7.
- Emilio Barambio De Haro. 93 urte. 2009-XII-8.
- Benito Rodríguez González. 94 urte. 2009-XII-9.

zinea Coliseoan

11n, 22.00etan; 12an, 17.00, 19.45 eta 22.30etan
13an, 17.00 eta 20.00etan; 14an, 20.30etan

"Julie y Julia"

Zuzendaria: Nora Ephron
Aktoreak: Meryl Streep, Amy Adams, Jane Lynch, Stanley Tucci...



Julia Child sukaldari ezaguna izan zen AEBtako 50. hamarkadan. Berrogei eta hamar urte pasatuta, Julie Powell-ek ez daki zer egin bere bizitzan. Juliaren 524 errezetak egin eta esperientzia blog batean idaztea erabaki du...

"Pluk eta garabia"

Zuzendaria: B. Sombogaart
Aktoreak: Janieck Polder, Suzanne Zuiderwijk, Yeshela Crommelin, Colin Tetterco...



Traktore gorria ailegatu da herrira, gidaria Pluk izeneko zortzi urteko mutikoa da eta bizileku baten bila dabil. Inork ez dio laguntzen eta Dordoken Lorategira joango da; Dolly usoa ezagutzen du eta Petteflet eraikinean logela bat libre ei dago...

"Dos canguros..."


Zuzendaria: Walt Becker
Aktoreak: John Travolta, Robin Williams, Seth Green, Kelly Preston...



Gizonezko bik 7 urteko bikiak zaindu beharko dituzte. Dibortziatu berria da lehenengoa, ezkongabea bigarrena; euren bizitzako negozioa egiteko prest zeuden, baina ume biek euren bizitzak aldatuko dituzte zeharo...

"Lluvia de albóndigas"

Zuzendaria: Phil Lord
Pertsonaiak: Sam, Flint, Alkatea, Brent...



Flint asmatzailea da eta bere amets nagusia pertsonen bizitza aldatuko duen zer edo zer asmatzea da. Orain arte ez du gauza larregirik sortu, baina bapatean lortu du: zerutik jatekoa jaustea dakarren makina asmatu berri du...

horoskopoa

ARIES

Ez galdu denbora tontakerietan eta zentratu zaitetz merezi duen horretan. Buelta gehiegi ematen dizkiozu balio handirik ez duten kontuei.

TAURUS

Ez duzu jakingo zergatik, baina oso gustuko duzun gauza bat jasoko duzu. Pozez zorutzen ipiniko zara eta ingurukoak ere pozuko dituzu.

GEMINI

Zenbakiak egiten badituzu ere, daukazun diruarekin ezin diozu operari hori erosi. Jakin gutxiarekin ere oso operari zoragarriak egin daitezkeela.

CANCER

Ekintza baten ardura osoa lagako dizute eta urduri ibiliko zara. Hala ere, irtenbide erraza aurkituko diozu eta arazoa konponduko duzu.

LEO

Merkurioek tenperatura baxuak markatzen dituzte, baina barrutik bero-bero zabiltza, Leo maitea. Ea nola itzaltzen duzun barneko sua.

VIRGO

Badakizu bera maiteminduta dagoela, baina zuk ba al dakizu zer nahi duzun? Hartu burua argitzeko denbora, behar izango duzu-eta.

LIBRA

Lagun berriak egingo dituzu, bereziki jatorrak izango direnak gainera. Eurekin gauza berriak egiteko aukera sortuko zaizu.

SCORPIUS

Ez zara harritu behar; bazenekien horrelako zerbaít gertatuko zela. Hurrengoan ekidin egin behar dituzu gauza hauek, zure mesederako da.

SAGITTARIUS

Itsututa bizi zara kontu horrekin eta ezin duzu horrela jarraitu. Laga gauza horiek alde batera, momentu txarrak pasatzea besterik ez dizute ekartzen.

CAPRICORNIUS

Beti gehiago duzu eta aseezina zara, ez zara edozerekin konformatzen. Datorren astean operari bat jasoko duzu, ea disfrutatzen duzun.

AQUARIUS

Lehenengo esan eta gero pentsatu. Ez al zenuke alderantziz egin beharko? Astakeriak esaten dituzu askotan. Baten bat hasarretuko zaizu.

PISCIS

Ez daukazu lotsarik! Ederra marka zurea, benetan barre egiteko modukoa. Zalantza barik, nahi gabe ere umorista ona zaude eginda.

Zapatua 12

KATEAREN EGUNA

12.00.- Debabarrena-Kirolgi taldeen aurkezpena eta kontratu sinaketa.

12.30.- Euskal Herriko Itzuliaren eta Donostiako Klasikoaren bideo-emanaldia.


13.00.- Patxi Usobiagari omenaldia.

13.15.- Azken denboraldiaren laburpena.

13.30.- Plaka eta oroigarri banaketa.

IGERIKETA

16.00.- Eibarko XXI. Igeriketa Gabon Kopa. Ipurua kiroldegian.



KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz irteera. Kalejira, Untzagatik hasita.

Domeka 13

BERTSO FINALERAKO AUTOBUSA

08.30.- Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finalera joateko autobusaren irteera. Ego Gaineke autobus geltokitik.

KROSSA

10.15.- LX. Bolunburu Oroigarri Krossa. Olabeiko zelaian.

GUAI

11.00/13.00.- GUAI Gabonetako Parkerako bonoen salmenta (18 euro). Portalean.

GABON KANTUZ

12.30.- Sostoa abesbatzaren eta beste abesbatza biren kontzertua, Gipuzkoako Abesbatzen Elkarteak antolatuta. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- *Noche en el museo 2'*. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

Astlehena 14

11.00/13.00.- GUAI Gabonetako Parkerako bonoen salmenta (18 euro). Portalean.

Martitzena 15

IKASTEN

10.00.- *Viajes a larga distancia: una visión diferente* (5. zatia). EPAn (Isasi, 39).

Eguaztena 16

GOZOGINTZA IKASTAROA

18.30.- ...eta kittol-ren gozogintza ikastaroa. Kamarroak elkarte gastronomikoan (San Juan).

HITZALDIA

19.00.- Arrateballe Bizirik taldearen hitzaldia: Teknikerren planak eta alternatibak, lanen gorabeherak eta Arrateballe babesteko proposamena. Portalean.

Eguena 17

IKASTEN

10.00.- *Inteligencia emocional* (2. zatia), Adindu-ren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

AURKEZPENA

19.00.- Eibarko euskararen web-orriaren aurkezpena. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz entsegua. San Andres elizako lokaletan.

KONTZERTUA

20.30.- XIII. Areto Organoaren Kontzertua Helmholtz 2009. Sarrera: Euro 2. Coliseoan.


DENBORAPASAK

SUDOKUA

	4					3	
			7	9	4		
	2	6	1			4	
6	3				7		
1	5		3				6
		2		1			
3		1	4	6			2
5			9		2	3	6
				3			4
							7

8	7	8	3	5	8	4	2	1
1	5	2	8	4	7	3	6	9
8	4	3	9	2	1	7	5	8
2	9	7	6	3	5	1	8	4
5	1	8	7	8	4	2	9	3
8	3	4	1	9	2	5	7	6
4	2	9	5	1	8	6	3	7
3	6	1	2	7	8	8	4	5
7	8	5	4	6	3	9	1	2

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

– Abenduaren 13ra arte

ANDER AGIRREBEÑAren argazki erakusketa. *Topalekuan.*

GEMMA MONREAL (pintura) eta **JAIRO BERBEL** (argazkiak) erakusketa. *Elgoibarko Kultur Etxean.*

– Abenduaren 31ra arte

ARGAZKILARITZA DIGITALAren hastapen ikastaroan jardun dutenen argazki erakusketa. *Portalea tabernan eta Deporren.*

– Urtarrilaren 3ra arte

‘Crisis olvidadas: vidas ignoradas’. **MUGARIK GABEKO MEDIKUEN** erakusketa ibiltaria. *Portalean.*

‘Consecuencias’, **ALBERTO REMENTERIA**ren margo erakusketa. *Portalean.*



salgai

MUSIKA:

Gabon Kantuz. Abenduak 13, 12.30.
XIII. Helmholtz kontzertua. Abenduak 17, 20.30.

laster salgai

ANTZERKIA:

‘Fugadas’. Abenduak 22, 20.30.

famaziak

11, barixakua

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

12, zapatua

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)

13, domeka

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)
GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)

14, astelehena

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

15, martizena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

16, eguaztena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

17, eguena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)

18, barixakua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.50 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.50, 10.50, 12.50, 16.50, 18.50 eta 20.50. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.50. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.50, 11.50, 13.50 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduero). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55-etera ordu. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.55 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

lehiaketak

- 18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkarte (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.

- ‘Aratosteak 2010 Eibarren’ kartel lehiaketa.

Lanak aurkezteko epea eta informazioa: Urtarrilaren 15era arte, Pegoran.

- Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.

Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

- 3D Counter Strike.

Lanak aurkezteko epea: Otsailaren 5era arte. Informazioa eta materiala: www.iesunibhi.com

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Ipuruan 2. pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaloa, komun bi eta ganbara. Berriztuta, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. 225.000 euro. Tel. 679-332949.

1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 943-254063.
– Eibarren pisua alokagai, bariantetiki gertu. 3 logela, egongela, sukalde-jangela eta komun bi. Eguzkitsua. Handia. Tel. 943-201294.
– Buhardila alokagai. Deitu 22.30etatik aurrera. Tel. 634-453097.

1.3. Konpartitzeko

– Neska batek pisua konpartituko luke neska arduratsuekin. Tel. 660-409539.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Lokala alokagai Eibarren. 180 m2. Argitsua eta ibilgailuarentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.
– Legarre Behean marradun garajea alokagai. 75 euro hilero. Tel. 676-105492.
– Asua-Errekan (Urkizu inguruan) garajea alokagai. Handia eta trasteak gordetzeko lekuarekin. Tel. 630-391112.
– Egiurentarrenean garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.
– Elgetan lokal itxia alokagai. Autokarabanak gordetzeko. Lapurreta eta suteen aurkako sistemarekin. 116 euro hilean. Tel. 670-755644.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da etxeko lanetan edo tabernan jarduteko. Interna edo externa. Tel. 679-910991.
– Mutila eskaintzen da banatzaile moduan lan egiteko. Tel. 646-432980.
– Mutila eskaintzen da banatzaile moduan lan egiteko. Tel. 671-826858.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 679-866836.
– Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 664-067280.
– Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.30etara garbiketak egin edo nagusiak paseatzeko. Tel. 634-256471.
– Emakumea eskaintzen da 17.00etatik goizeko 10.00ak arte nagusiak zaintzeko. Tel. 662-247584.
– Neska eskaintzen da orduka edo asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 669-152189.
– Neska eskaintzen da goizez edo asteburuetan nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.
– Emakumea eskaintzen da asteburueta-ko gauetan nagusiak zaintzeko. Tel. 638-736539. Dori.
– Mutila eskaintzen da asteburuetan kamarero moduan lan egiteko. Tel. 658-719676. Enrike.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 616-397348 edo 626-670510.
– Mutila eskaintzen da banatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 638-344377.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 630-531469.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 655-077394.
– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 664-881835.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 651-836353.
– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 669-966611.
– Mutila eskaintzen da elektrizista (2. mailako ofiziala), igeltsero laguntzaile edo pintore moduan lan egiteko. Tel. 606-612834.
– Neska eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 634-661438.
– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-530517 edo 645-366850.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-302237.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 686-435056.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 686-420642.
– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 654-837227.
– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtsoa eginda. Tel. 669-311385 edo 646-235195.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 656-493864.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. 675-421933.
– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754.

– Emakumea eskaintzen da arratsaldez eta asteburuetan kamarera moduan. Tel. 671-972733.
– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez eta gauetz nagusiak zaintzeko. Tel. 672-076852.

4.2. Langile bila

– Abenduaren 23an olentzero jatzeko jendea behar da Gabonetako ekitaldi baterako. Ordainduko da. Tel. 695-723689.
– Ileapaintzailea behar da Eibarko ilepaindegi batean jornada erdirako. Tel. 943-207249. Sonia.
– Aerobic-eko klaseak emateko irakaslea behar da Ugan Klubean. Tel. 943-820452. ugan.klub@euskalnet.net

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bikiendako material ugari salgai: karroak, tronak, oheak... Oso egoera onean. Erropa oparituko da. Tel. 665-728504.
– Fotokopiadora (zuri-beltz eta koloretan) salgai. Tel. 943-127191.


6.3. Galdu/Aurkitu

– Urrezko aliantza aurkitu dute Urkizun. Galdetu Juanito tabernan.



Eibarko El Corte Inglés

Beste estilo bat etxerako



Enea-behar duzun guztianekin hantzeko eta adin-mudan jartzeko: abajua, trenaria, elektronikoa, sukaldaketa tresnak, alfanbrak, etxezko arropak, abesten hartzeko sistemak... eta, berriko moduan, merkatari onenak.



EGG GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KAPTA, EPEKARO FINANTZAKETA/SALMENTA, ETXERA BIDALTzea, BIDAI AGENTZIA, ASERGIU ZENTROA, KAFETERIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA, KONFORME GERATU EZIK, OIRUA ATZERA ITZULIKO DA, GUREN HITZ EGITEKO: 901 122 122

ALFA

www.alfahogar.com

